

Berbaz

“Gazteek, euskararen erabilerari buruz
hausnartzen dutenean, erreakzionatu egiten dute” > 10
Berbaro elkarte



Minbiziari positibismoz erantzuteko prest

Gabriel Otorak eta Montse Llorentek minbizia duten pertsoneri eta haien ingurukoei laguntza eskaintzen diete. AECC minbiziaren kontrako elkartearen bidez, berotasuna eta jarrera positiboa transmititzen saiatzen dira. Eguaztenean berbaldia eskaini zuten, Behargintzan. > 2

55 enpresak energia aurrezteko produktuak aurkeztuko dituzte Berdeago azokan

Gaurtik domekara bitartean, ingurumen arloan dabiltzan 55 enpresak euren produktuak aurkeztuko dituzte Berdeago azokan. Nobedadeen artean, hidrogenoagaz funtzionatzen duen auto bat aurkeztuko dute. Hortik aurrera, Landako Guneak egitarau zabala hartuko du. Adibidez, Luis Sutil Maristetako irakasleak bere auto hibridoa erakutsiko du, eta bere esperientziaren berri emango du. Gainera, AHTa eta frackinga ere izango dituzte berbagai. > 3



URIEN liburudenda

ALOKATZEN DA
JUBILAZIOAGATIK

Prentsa · Aldizkariak · Fotokopiak
· Fax zerbitzua · Telefono txartelak ·
Opariak · Jolasak · Eskola eta bulego gaiak
· Autobus bonoak · Gozokiak

Informazio gehiago, 944 669 360 telefonon
edo Bixente kapanaga, 10 lurretan

Kaixo!
ireland

Uda Irlandan gozatu
Irlandako familia batekin
ingeleza ikasten

Jar zaitetz gurekin harremanetan!

www.kaixoireland.com

Durango > 4

LABek igerilekuko tabernaren
“gestio txarra” kritikatu du

Zornotza > 7

AHTa egiteko lurren desjabetze
akten sinadura bertan behera

Mañaria > 9

Lokalak etxebizitza gisa erabiltzea
erabaki du Mañariko Udalak

Durangaldea > 4

23.000 kilo janari Durangaldetik
saharaiuen kanpalekuetara

Herririk herri**“Minbizia duen gaixoari laguntzeko giltza positibismoa da”**

Montse Llorentek eta Gabriel Otorak minbizia dutenei ematen dieten arreta sozialaz berba egin dute

DURANGO Markel Onaindia Zelan zaindu minbizia duten gaixoak eta haien senitartekoak? Arreta psikosozialagaz lotutako galdera horri erantzuteko asmoz, topaketa egin zuten eguaztenean, Durangon, Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarteak (AECC) antolatuta eta Bizidun nagusien elkartearen babesagaz. Montse Llorente eta Gabriel Otorak izan ziren hizlarietako bi, eta adeitasunez sakondu dute gaia ANBOTOGaz izandako solasaldian. Minbiziaren aurkako mugimenduan jo eta ke dabilta biak. Llorente AECCren Durangoko batzordeko kidea da, eta gaixo zein senideei bere borondatez laguntzen dabil duela 48 urtetik. Gaixoak zaintzean baikortasunez jardutea da garrantzitsuena bere ustez: “Minbizia duen gaixoari laguntzeko giltza positibismoa da, ahalik eta animo gehien transmititzea”. Gainera, entzuten jakitea ere beharrezkoa dela uste du.

AECCren Bizkaiko gerentea da Gabriel Otorak. Bere iritziz, jarreraz gainera, badago beste giltza bat: afektibitatea. “Maitasuna, arreta eta sentsibiltatea” ei dira hori eskaintzeko tresnak. Llorentek eta Otorak ez dituzte positibismoaren eta maitasunaren berba horiek arinkeriaz erabili. Benetan sinisten dute horretan. Izan ere, Otorak kontatu du gaur egun inoiz baino gehiago berba egiten dela egoera animikoaren eta gaitasunaren arteko konexioaz ikuspuntu zientifiko batetik: “Pertsona bat psikologikoki ga-

raituta eta minduta sentitzen denean, osatzeko prozesuak gehiago zailtzen dira. Ondorio horretara ailegatzen gabilta. Egoera animiko ona eta indar espiritual handia daukatenean artean, ostera, eragin zientifiko harrigarriak sortzen dira”.

150 boluntario, 1.600 gaixo Prebentzioagaz eta ikerketarako diru-bilketagaz batera -2015ean 300.000 euro bideratuko dituzte-, arreta psikosoziala da AECCren lan-lerro nagusietako bat. Ospitaleetan nahiz etxetan garatzen dute, eta 150 boluntarioz osatutako sare bat dauka horretarako. Boluntarioak hezten ditu lehenik, eta horiek gero hainbat erataraz egiten dute ekarpena: gaixoekin berba egin, haien ondoan egon, ospitalera lagundu... Llorentek dioenez, gaixo horietako askok ez dute nogaz egon, bakarrik daudelako: “Badago jendea kimioterapia hartzera bakarrik joaten dena. Badirudi ezin dela hori gertatu, baina gertatzen da”.

Minbiziak gizartean duen eragina erakusten duten datuak eman ditu Otorak: Bizkaian 2014an ia 1.600 gaixogaz egon ziren; 900 laguni eskaini zieten arreta soziala, 3.000 bisitareren bitartez, eta 680 lagunek jaso zuten laguntza psikologikoa, 6.000 saiotan.

“Transmisio soka”

Hamalau lagunek osatzen dute Durangoko batzordea. Informazio kanpainak zabaldu eta dirua batzeaz gainera, beharra dutenekin “transmisio soka” izatea



Eguaztenean Behargintzan egin zuten minbiziaren inguruko berbaldia.

ere egokitzen zaie, Llorentek kontatu duenez. Oheak eta gupil aulkiak lortzen ibiltzen dira, esate baterako. Laguntzen hasi zeneko sasoi gogoratu du: “Kutxagaz dirua batzen joaten ginen, eta ia bota egiten gintuzten.

Gaur egun, hurreratu egiten da jendea. Zoritzarrez, zer familiantan ez da tokatu?”.

Llorentek berak ere ondo baino hobeto ezagutu du minbizia. Amak eduki zuen lehenik, eta gaingitu egin zuen. Gero,

duela hogeita bat urte, bera gaixotu zen. Borroka hura irabaziz minbiziari, eta gainerako gaixoekin borrokan jarraitzeko asmoa dauka: “Indarra dudana bitartean, ez dut inoiz uzteko asmorik”.

Leuzemiaren aurkako maratoia egingo dute

‘Marea laranja’ deitu dute martxoaren 15erako



Nevers ikastetxean ‘flashmob’-a egin dute maratoira iragartzeko.

DURANGO M.O.

Martxoaren 15ean, leuzemiaren aurkako maratoi solidarioa egingo dute Merkatu plazan, zenbait senidek eta elkarte elkarlanean antolatuta. *Marea laranja* izena ipini diote, eta askotariko ekintzak egongo dira. 10:00etan xakean jokatu dute, 12:30erako krosoa deitu dute, eta 16:00etan zumbagaz dantza egingo dute. Gainera, tailerrak eskainiko dituzte egun osoan. Egunean batzen den dirua Gurutzetako ospitaleko ikerketa baterako erabiliko dute.

Nevers ikastetxean, iaz leuzemiagatik hildako Ekaitz Larauogoitiaren ikaskideek *flashmob* bat egin dute, maratoira joateko deia egiteko.

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia, Amaia Huarte Basabe, Itxaso Altuna Marina.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urtiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Amaia Ugalde Begoña, Martxel Zubia Arrinda eta Eneko Azurmendi Barrena.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Jon Ander Urkiaga Egidazu.

2015eko otsailaren 20a, 13. urtea - 578. alea

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 11.500 ale

“Ipuinetan neskari taldearen edo seme-alaben zaintzailearen rola ematen zaio”

Etxebarrietak dio ipuinek umeen genero ikuspegian eragiten dutela

DURANGO Jone Guenetxea Oihana Etxebarrieta kazetariak ipuinak eta jolasak genero ikuspuntutik aztertu ditu asteon, Platerueneko Berbertan elkarrizketen tartean.

Generoa zelan landu da orain arte haurren ipuinetan?

Orokorrean, betiko estereotipoak lantzen dituzten ipuinak izan dira. Rol oso markatuak dituzte bertako protagonistek, neskek eta mutilek. Azkenean, hartzaileei asko eragiten die ikusteak bere adineko mutilek ipuinetan zertan jolasten diren edo neskak ia agertu ere ez direla egiten. Nesken protagonismo falta handia topatu dugu. Badaude horregaz apurtu duten ipuinak, Pipi Galtzaluzerenak, esaterako. Askorentzat oso pertsonaia berezia izan da, eta estereotipo horiek apurtu ditu; hau da, mutilek ipuin askotan egiten dutena probatzen du, abenturak izaten ditu... Bitxia da: honen inguruan hitz egiten dudak bakoitzean, askok esaten didate liburu ho-

riek erreferentzia izan direla haienentzat. Horrek esan gura du dagoen gutxi horri indarrez heldu diogula.

Ipuinetan eta jostailuetan zein rol irudikatzen da?

Neskari ematen zaion rola taldearen edo seme-alaben zaintzailearena izaten da. Mutilak, ostera, abenturetan sartuta ibiltzen dira. Ausardiaren eta beldurraren kudeaketa lantzen dute. Norberaren mugei aurre egiten diete. Bi aldeak oso beharrezkoak dira, baina kasu honetan oso banatuak agertzen dira.

Hori guztia aldatzen dabil?

Sortzaileen artean gai honen inguruan bada kezka bat. Mutilen kasuan, beldurra duten mutilak agertzen zaizkigu; hor dugu *Jonas eta hozkailu beldurtia*, esate baterako. Beraz, mutil batzuek beste emozio horiei ere heltzen diete. Gutxiago dira neska abenturazaleak agertzen dituzten ipuinak, baina badira, geroz eta gehiago, gainera. Oso ohikoa da

ipuin klasikoei heltzea. Honegaz ez dut esan nahi ipuin klasikoak hartu behar ez ditugunik, baina zabaltzen ditugunean, oraindik ere protagonismoak oso banatuak ikusten ditugu.

Jostailuetan ere estereotipo horiek indartzen dituzte?

Jostailuek eurek ez dute ez-lango rolik banatzen. Arazoa sortzen da jostailu horiei kolorea jartzen diegunean. Egun, urdinarren eta arrosaren erabilera garai batean baino askoz handiagoa da. Horrek asko baldintzatzen du aukeraketa egiterako orduan. Mutil bat ez da eroso egongo jostailu arrosa batez; baina ez berak ez duelako nahi. Gizarteak eta publizitateak transmititzen dute banaketa hori.



Gaur zabalduko dute Berdeago azoka

55 enpresak erakutsiko dituzte produktuak azokan

DURANGO Markel Onaindia Gaurtik domekara bitartean, 55 enpresak energia aurrezteko diseinatu dituzten produktuak erakutsiko dituzte Berdeagon, ingurumenaren euskal azokan. Urterik urte sendotzen doan azoka da, eta Iñigo Peña antolaitzaileak emandako datuak ikusi besterik ez dago. Aurten, 30 bat enpresari ezetz esan behar izan diote, leku faltagatik. Iaz 12.000 lagun batu ziren azokan, eta datu hori “oso ona” dela esan arren, gorantz egiteko asmoa dute. Nobedadeen artean, hidrogenoagaz funtzionatzen duen auto bat egongo da ikusgai.

Eguerdiko 12:30ean inauguratuko dute azokaren aurtengo edizioa. Hortik aurrera, tailer eta berbaldi ugari jantziko dute Landako Guneko egitaraua. Durangar batzuk ere izango dira protagonista; adibidez, Maristak ikastetxeko irakasle Luis Sutilek bere auto hibridoa erakutsiko du, eta bere esperientzia kontatuko du. Leire Gorroñok, ostera, energiaren planifikazioaz berba egingo du. Bestalde, aktualitateagaz lo-

tutako gaiak jorratuko dituzte egunotan. Esaterako, AHTa eta frackinga izango dituzte berba Berdeago azokako berbaldietako batzuetan. AHTaren kasuan, Iñaki Barcena eta Roberto Bermejo irakasleek egingo dute berba, eta frackingari buruz Mikel Oterok, Fracking Ez! Euskadi plataformakoak.

AHTa eta frackinga izango dira Berdeago azokako berbaldietan landuko dituzten gaietako bi

Durango, epizentro

Aitziber Irigoras alkateak azokaren aurkezpenaren esan zenez, Durango, “ingurumenaren aldeko ekintzen epizentro” bihurtu gura dute Berdeago azokagaz. Milaka bisitari jasoko ditu herriak.

Bihar eta etzi 10:00etan zabalduko dituzte Landako Guneko ateak. Itxi, berriz, gaur eta bihar 20:00etan, eta domekan 19:30ean.

Unibertsitatea, inguruko gizartearekin inplikatzeko ere bada.

erronkarako #prest

Irune Salterain,
Lehen Hezkuntza, 4. maila.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

DONOSTIALDEA · OTSAILAK 28
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI · MARTXOAK 14
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI · MARTXOAK 14
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BIDASOA · MARTXOAK 28
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · MARTXOAK 7
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · MARTXOAK 7
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MARTXOAK 21
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

LABek igerilekuetako taberna "txarto gestionatu" dela dio

Landakoko igerilekuetako taberna itxi egin dute

DURANGO Markel Onaindia Otsailaren 15ean Landakoko igerilekuetako taberna itxi egin zuten, eta Aste Santura arte gutxienez horrela egongo da. Izan ere, tabernaren gestioaz arduratu den Dendak Bai merkatari elkarteak lizentzia amaitu aurretik ixtea erabaki du; martxoan amaitzen zitzaion eskumena. Udalak martxora arte ez du berriro kontratazio fasea zabalduko, eta bitartean freskagarri eta kafe makinak ipiniko dituzte tabernaren espazio berean. Itxiera gatazkatsua izan da langileekin, eta LABek egoera salatu du. Sindikatuaren ustez, Dendak Baik "txarto gestionatu du", eta udalaren partetik "utzikeria" egon dela kritikatu du.

Kobratu barik
Beharginak lanera bueltatzeko eskatzeko, LABek protesta egin zuen atzo, udaletxe parean. Bost lagun egon dira tabernan beharrez, eta, sindikatuaren arabera, azken hilabete bietan kobratu barik egon dira. Horregatik, dirua bueltatzea eskatu dio Dendak Bairi. Baina sindikatuaren kritika hori baino sakonagoa da. Alfonso Aranguren ordezkariak azaldu du zor zitzaiena baino postu baxuagoan egon direla baloratuta; hau da, zerbitzari dagokiena beharrez laguntzailei dagokiena ordaindu dietela.

LABen iritziz, azken hil bietako egoerak "tentsioa eta estresa" sortu ditu beharginengan, eta gestioaren arduradunak



LABek protesta egin zuen atzo, udaletxe aurrean.

jo ditu errudun. Arangurenek kontatu duenez, datorren astelehenean batzartuko dira Dendak Baigaz. Udalaren berririk ez dute izan, eta, EH Bilduren bidez udalbatzarrean gaia komentatu arren, sindikatuak ez du erantzunik jaso.

Adjudikatzeko moduz
Bestalde, zerbitzua adjudika-

tzeko udalak erabilitako modua kritikatu du Alfonso Arangurenek. Udalari egotzi dio "haren nahiaren arabera eta ezkutuan ibilita" adjudikatu izana. Prozedura horren kontrara, taberna publikoaren kudeaketa udalak zuzenean eraman dezala exijitu du LABeko ordezkariak, eta kalera botatuko beharginak berriro kontratatu ditzala ere bai.

Alberdi harategiko txorizoak berriro onenen artean

DURANGO M.O.

Villa de Bilbao txorizo lehiaketan sarritan izan da finalista eta garaile Alberdi harategia, eta aurten ere onenen artean egon dira bertako txorizoak. Otsailaren 12an izan zen Bilboko finala, eta Txema Alberdik parte hartu zuen bertan. Gainera, Patxi Aranberri elorriarrak ere finalisten artean egoteko zorzea eduki zuen. Guztira, 74 egile aurkeztu ziren, eta sei sailkatu ziren finalera. Irabazlea Lakuntzako Jose Mari Agirre izan zen.

Txarriduna izeneko txerriaren inguruko akademiak antolatzen du txorizoaren inguruko lehiaketa berezi hau. Epaimahaia, ostera, adituek osatzen dute: sukaldariak, irakasleak eta blogariak, esate baterako.

23.000 kilo elkartasun saharaiengana bidean

Durangaldean jasotako gaiekin kamioi bat bete dute

DURANGALDEA M.O.
Tindufen (Aljeria) errefuxiatuta dauden saharaietako laguntzeko Karabana Solidarioa prest

dago, eta bihar irtengo da Donostiatik Alacanteko (Herrialde Katalanak) portura bidean. Handik Aljeriara joango da,



Bihar irtengo da kamioia Durangaldefetik.

itsasoz. Durangaldean jasotako laguntzagaz kamioi bat bete dute, eta 23.000 kilo janari eramanango dituzte barruan; 23.000 kilo elkartasun dira, saharaiengana bidean.

Durangoko Herria elkarteak ibili dira koordinatzen, eta Elorrioko Lajwad elkarteak eta Otxandioko eskolako gurasoek ere parte hartu dute.

36.000 euro

Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Garai, Iurreta, Mallabi eta Zaldibarko udalen eta Amankomunazgoaren artean ia 36.000 euroko ekarpena egin dute, eta antolatzaileek kamioia erosi dute diru horregaz. Soberran geratu denagaz jakiak erosi dituzte. Bestalde, 23.000 kiloetatik 7.000 herritarrek emandakoak dira.

Horretaz gainera, 30 kutxa konpresa eta 500 kilo arropa joango dira kamioian, JAED elkarteak emandako laguntzari esker.

Ekainera arteko egitasmoak aurkeztuko ditu Gure Esku Dagok

ABADIÑO Itsaso Esteban Zelaietako Txanporta kultur etxean aurkeztuko dituzte bihar, 12:00etan, Gure Esku Dago ekimenaren hurrengo hitzorduak eta helburuak. Apirilaren 25eko Joste Egunari eta ekainaren 21eko hiriburuetako egitasmo handiari buruzko informazioa eskainiko dute, besteak beste, aurkezpen horretan. Erabakitze esku-bidea ezberdinen arteko topagune bilakatzeko helburuagaz dihardu Abadiñoko Gure Esku Dago taldeak ere: askotariko koloretako eta ehunduratako oihalak elkarrekin josi, eta etorkizunari denon artean forma emateari buruzko metaforari helduta egingo dituzte datozen hilabeteetako ekintzak.

Jubilatuen taberna hartzeko deialdia egin du Iurretako Udalak

IURRETA Amaia Ugalde Iazko urte amaieratik zarratuta dago Goiuriako Ama nagusien egoitzako kafetegia. Kudeatzaile bat hartzeko, deialdia egin du asteon udalak, eta martxoaren 4ra arte aurkeztu daitezke eskariak eta proposamenak udaletxeko Erregistro Orokorrean.

Tabernako kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da, gehienez lau urtera luzatzeko aukeragaz. Iurretako Udalak urtean 9.050,80 euro ordainduko dizkio kafetegiaren kudeatzaileari, eta hark urtean gutxienez 100 euroko kanona ordaindu beharko dio udalari. Baldintza horiek negoziagarriak direla azaldu du udalak kontratazio espedientearen.

ITURRIAGA
SUKALDEAK
Gremioen koordinaketa

Trañaelxosle, 2-48220|Abadiño - Tlf. | Fax.: 94 655 07 22 - 605 740 176

SERRATU, S.L
GALDARAGINTZA
ETA ITXIERAK

1989 25 ANIVERSARIO 2014
gure bezeroen zerbitzura

Astola, 48 48220 ABADIÑO / Bizkaia
Tel.: 946 201 837 - Faxa: 946 818 635 - serratu@serratu.com
www.serratu.com



ERROTARITXUENA DURANGO

Errotaritxuenaren
arrakastaren arrazoiak:

Finantzatzeko **ERRAZTASUNAK**
ASKOTARIKO tipologiak (1, 2, 3 eta 4 logela)
Terrazak etxebizitza **GUZTIETAN**
Mugarra alderako **BISTA** garbiak
Barneko **PLAZA** zabala
Auzoari **BURU EMATEA**
Gauzatzeko **URBANIZAZIO KARGARIK GABE**
SALTOKIAK eraikinetik oso gertu
Berdeguneak eta **LASAITASUNA**
ARRISKURIK GABEKO aukera

BALDINTZA BERRIAK KONTSULTATU

www.solvía.es Sabadell Guipuzcoano



946 46 20 41
www.sukia.com



sukia Zure etxean zaude
Estás en tu casa



Kerixeta: Mendrakatik datorren txakolin beltza

Joan zen barikuan aurkeztu zuten Kerixeta txakolina

ELORRIO M.Z./M.O.

Mendrak, Santamañezar mendiak babestutako mahastietatik, beste txakolin bat jaio da. Kerixeta izena ipini diote, eta bereizgarri bat dauka: txakolin beltza da. Joan zen barikuan egin zuten edabearen aurkezpena, Elizalde upategian, hainbat lagunez inguratuta.

Blanqui Gomez Querejetak eman zituen proiektuaren inguruko azalpenak. "Maitasun osoz" egindako ardoa dela adierazi zuen, eta upategiko enologia den Mikel Garaizabalen

berbak erabili zituen deskribatzeko: "Ardorik onena ez da nahitaz munduko garestiena izan behar, ardorik onena ingurukoekin partekatzen dena da". Pinot noir mahatsagaz ekoitzi dute Kerixeta txakolin beltza.

Markan eta irudian ere badu berezitasuna Kerixeta txakolinak. Izan ere, Gotzon Garai-zabalek eta Peru Magdalenak osatutako 2d1 taldeak landu du botilen etiketarako diseinua. Sei irudi sortu dituzte guztira, eta horien aurkezpena ere barikuan egin zuten.



Elizalde upategian, joan zen barikuan eginiko aurkezpena. Maialen Zuazubiskar

Adaxka solidarioak

Bestalde, egitasmo solidario batean parte hartuko dute Mendrakako txakolin egileek. Inausitako adaxkak Kainabera ongintza elkartearen esku utzi di-

tuzte, eta horiek salduta lortzen den dirua kooperazio proiektuei laguntzeko izango da. Adaxka sorta bakoitza 2 euroan salduko dute, eta bost sorta eskatuz gero 8 euro kobratuko dute. Eskaera

egin gura duenak otsailaren 28ra baino lehen deitu beharko du 670 428 638 telefonora, eta martxoan jasoko ditu adaxkak etxean, Kainaberako kideen eskutik.

27. urtemuga ospatuko dute gaztetxean

ELORRIO Markel Onaindia

27 urte pasa dira dagoeneko Elorrioren gaztetxea sortu zenetik. Gertaera hori gogoratzeko eta 27. urtemuga ospatzeko, egun osoko egitaraua antolatu dute gaztetxeakoek biharko. Umeentzako antzerkia, bazkaria eta kontzertuak iragarri dituzte, esate baterako. Goizeko 11:00etan elkartuko dira, egunari hasiera ekitaldi batez emateko. 12:00etan ekintza bi egongo dira aukeran; alde batetik, umeentzako antzerkia eta, bestetik, triki-poteoa. 14:00etan omenaldia egingo dute, eta 14:30ean bazkarian batuko dira. 19:00etan talde ar-

gazkia aterako dute, eta, ostean, kontzertu akustikoak eskainiko dituzte Mundu Unplugs The Ramones-ek eta Tupper Ordorikak. Gauean, 22:30etik aurre-

Arratsaldeko 19:00etan talde argazkia aterako dute. Ostean, kontzertuak eskainiko dituzte

ra, Akerbeltzen erromeriagaz dantzatuko dute lehenik, eta, jarraian, DJ Bullek ipiniko du festarako musika.

euroko kostua edukiko ei du eragindako kalteak.

Udalak azaldu duenez, ez da karpa kaltetzen duten lehenengo aldia. Joan zen astean bertan 1.100 euroko konponketa egin behar izan zuten, eta 2013an 1.400 euroko beste bat. Udalak 38.000 euro gaz erosi zuen karpa, herriko jarduerak zein merkatarien elkarteak antolatutako ekintzak garatzeko.

Pilotalekuko karpa kaltetu dute berriro ere

ELORRIO M.O.

Martitzen karnabal gauean, udalak pilotalekuan egokitutako karpa zulatu zuten ezezagunek, eta udalak oharra bidali du ekintza gaitzesteko. 1.000

Sakabanaketa salatzeko hainbat ekitaldi bihar

OTXANDIO Joseba Derteano

Otsailean hamabost urte bete dira Ruben Garate otxandiarrak hil zela, Jose Antonio Fernandez euskal preso bisitatzeraz zihola edukitako istripu batean. Hainbat ekitaldi egingo dituzte zapatuan, presoen sakabanaketak senitartekoei eragiten dien sufrimendua salatzeko. Bihar, 09:30ean, Motxotegira mendi martxa abiatuko dute plazatik; 13:30ean giza kate bat

egingo dute Andikonatik, eta, ondoren, ekitaldia egingo dute. 15:00etan herri bazkarian batuko dira, eta, 22:30ean, Zirkinik Bez! eta Xaiko taldeen kontzertuak izango dira gaztetxean.

Amaraune sareak, batzarra

Amaraune sareak jakinarazi duenez, herriko berbak batzen hasteko lehen batzarra gaur egingo dute, 18:00etan, Andresa Landako euskara gelan.

Bidealde elkarteak kuota igoera proposatuko dute

IZURTZA J.D.

Bidealde elkarteak urteko batzar orokorra egingo du otsailaren 28ko zapatuan, 12:00etan. Hainbat faktorek eraginda, diru sarrerak handitzeko bazkideen kuota igoera izango da eztabaidatuko duten puntuetako bat.

Izan ere, orain urte eta erdi komunekin sabai zati bat erori egin zen, eta obrak egin behar

izan zituzen; gainera, hozkailu bat ere erosi zuten. Soberakina zati handi bat erabili zuten horretarako. Bestalde, iazko batzarretik aurtengora bazkide kopurua jaitsi egin da: 35etik 31ra. Eta horri gehitu behar zaio garbiketarako enpresa baten zerbitzua kontratatzeak gastuen igoera ekarri duela. Beraz, aipatutako horiek dira aurtengo kuotaren igoera proposatzeko arrazoiak.

Aurtengo arte urteko batzar orokorrak bazkalostean egin izan dituzte, baina aurtengo, lehengo, bazkalaurtean egingo dute, 12:00etan.

"Esku-hartzeen gainera" udalak euskara sustatzen jarraituko du

ATXONDO J.D.

Asteleheneko udalbatzarrean, Bilduk eta EAJk aho batez onartu zuten mozioa, Carlos Urquijo Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak udalen jardunean egin dituen "esku-hartzeek udala euskara sustatzeko egiten den ahaleginean" jarraitzeko asmoa. Horregaz batera, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariaren figura eta lana "bertan behera uzteko" eskatu du. Gainera, otsailaren 28an Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Donostian egingo duen manifestaziora joateko deia luzatu du.

Esku-hartze horien ondorioz, besteak beste, udalak euskalduntzeko hizkuntza irizpideak "susmopean" jarri ditu: "Egoera larria da. Euskararen ofizialtasuna bera dabilta zalantzen ipintzen", adierazi dute. Horregatik, udalak berretsi egin du "euskara sustatzeko egiten den ahaleginean" jarraitzeko asmoa. Horregaz batera, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariaren figura eta lana "bertan behera uzteko" eskatu du. Gainera, otsailaren 28an Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Donostian egingo duen manifestaziora joateko deia luzatu du.

hitz liburutegia

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

HELDUENTZAT SONETOAK William Shakespeare (2015)	UME ETA GAZTEENTZAT ESPERIMENTUEN LIBURU APARTA Iraitz Urkulo (2014)	MUSIKA ZIRKULUTIK ESPERALERA Anestesia (2015)

ZARATE ELEXPE
FRAGILEAK

la erdia salduta!

Bixente Kapanaga, 19 behea · IURRETA · Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

AHTa egiteko lurren desjabetzeak sinatzeko leku barik udaletxean

Eguaztenean ez zen akten sinadurarik egin, udaletxean ez zegoelako gelarik libre



Desjabetzeen kontrako elkarretaratzeta, eta eskuinaldean ertzainak.

ZORNOTZA Joseba Derteano Eguazten goizean Zornotzako 30 lur-jabe AHTa egiteko lurren desjabetze aktak sinatzera deituta zeuden udaletxean. Adifeko ordezkaria, Espainako Gobernuak Bizkaian duen ordezkaria eta lur-jabeak udaletxera sartzeko zain zeudela, udaletik jakinaz zieten ez zegoela gelarik libre prozedura garatzeko. Ondorioz, deialdia bertan behera utzi zuten.

Carlos Coscobil Espainiako Gobernuaren ordezkariak dio gela baten eskabidea otsailaren 5ean bidali zutela udalera, eta jaso izanaren adierazpena ere heldu zitzaizela. Baina, David Latxaga alkateak esan duenez, gelarik libre ez zegoela zioen jakinarazpena bidali zitzaion Ordezkariari, eta, heldu ez bada, "txarto-ulerturen bat" egon da. Gainera, adierazi du eguaztenean ezin zuela akten sinaketan

egon, "agenda beteta" zuelako. Hurrengo deialdia seguruenik Bilbon egingo dute, Gobernuko ordezkariaren egoitzan.

Eguaztenean, EH Bilduko eta AHT gelditu! Elkarlaneko ordezkariak udaletxe parean elkarretaratu ziren. EH Bilduko legebiltzarkide Unai Urruzunoren ustez, Jaurklaritzak "beste lehentasun" batzuk izan behar lituzke; "langabezia murriztea eta enplegua sortzea", adibidez.

Oinezkoak lehenetsiko ditu Ogenbarrenak

Espazioa berrantolatu eta azpiegiturak hobetu dituzte

ZORNOTZA J.D.

Ogenbarrena auzoan, espazio publikoa berrantolatzeko eta azpiegiturak hobetzeko lanak amaitu dituzte Aramotz-Gudari eta Landeta-Arrieta kaleen artean.

Espazio publikoa berrantolatzeko eta berritzeko orduan, oinezkoak lehenetsia izan da irizpide nagusia: espaloiak zabaldu-metro bat baino gehiago gune batzuetan- eta bidegurutzetako oztopoak kendu dituzte, eta, argiteria osoa berritu dute; helburua oinezkoen erosotasuna

eta segurtasuna hobetzea izan da. Aparkalekuei dagokionez, Arroita Jaion alde bietan apartatu zitekeen, eta orain alde batean bakarrik. Azpiegiturei dagokionez, orain arte hoditeria beretik zihoazen euri urak eta ur fekalak bereiztu egin dituzte: orain hodi banatan doaz. Horrek hoditeria sistema osoaren funtzionamendua hobetuko du.

Uda ostean, Landeta eta Ogenbarrena kaleen arteko bigarren fasea hasi gura du udalak. Gune horretan ere lan integrala osatuko dute.



Alkatea, alkateordea eta obren zuzendaria Ogenbarrenan.

Iltzez betetako txorizo bat aurkitu dute Larrea auzoan

ZORNOTZA J. Guenetxea Joan zen eguen arratsaldean iltzez betetako txorizo bat aurkitu zuen txakur baten jabeak, Larreako berdegune batean. Beagle arrazako Laika txakurra txorizora hurbildu zenean, zer edo zer arraroa sumatu zuen jabeak, eta berehala kendu zion ahotik. Udaltzaingoari gertatutakoaren berri eman zion. Zornotzan iltzez betetako janaria aurkitzen duten lehengo aldia den arren, Durangaldean badaude aurrekariak. Durangon orratzez betetako saltxitxak aurkitu zituzten joan zen ekainean txakurrak ibiltzen diren bi parketan.



Larrean aurkitu duten txorizoa.

Ehundik gora onartu, administrari lan-poltsan

Udal administrariaren ordezkapenentarako zerrenda

ZALDIBAR Itsaso Esteban Administrariaren lan-poltsa osatzeko Zaldibarko Udalak zabaldu duen prozesurako onartuen zerrenda publikatu du udalak. Zerrendan izena emateko beharrezko agiriren bat aurkeztea falta zutenek, bestalde, aste honetara arteko epea eduki dute eskabideak gaurkotzeko.

Arantza Baigorri alkateak azaldu duenez, ehundik gora lagun daude lan-poltsa osatzeko

prozesurako onartutakoen artean. Alkatearen berbetan, "harrirituta" daude deialdiak eragin duen jakin-minagaz, eta izena eman duen jende kopuruagaz.

Zaldibarko alkateak azaldu duenez, martxoaren 25ean, Olazar pilotalekuan egingo dute lan-poltsaren ordena ezartzeko azterketa. Aurrerantzean, udaleko administrariaren bajak ordezkatzeko baliatuko dute zerrenda horretako hurrenkera.

Pilotalekuko teilatuan kalteak eragin ditu elurrak

Elurra beheko teilatua jaustean gertatu da kaltea

GARAI Markel Onaindia Azken asteetan izandako elurtearen ondorioak bistakoak dira Garain. Izan ere, pilotalekuko teilatuan kalteak eragin ditu, eta konponketa egitera behartuta dago udala.

Udal ordezkariaren arabera, goiko teilatuan pilatutako elu-

rra behekoa jaustean gertatu da kaltea. Beheko teilatu horrek jesarlekuen eremua babesten du. Antza denez, erretena eta hainbat teila apurtu dira bertan.

Udalak ez dauka oraindik konponketarako aurrekonturik zehaztuta.

Ekoden HORTZ KLINIKAK
CLINICA DENTAL

Implanteak jarri



eta hurrengo egunean
PROTESI BERRIAREKIN
mastekatu ahal izango duzu

ORAIN PROTESIA BEREHALA KARGATZEN ZAIEN INPLANTEEZ GOZATU AHAL IZANGO DUZU

BETI ZURE KIRURGIAREN SEGURTASUNAREKIN, 1 mm ARTEKO EBAKETAK (3D) EGITEN DITUEN HORTZETAKO 3D ESKANERRARI ESKER

15%

-rainoko DESKONTUAK
WEB GUNeko TARIFETAN

36 HILABETE ARTEKO FINANTZAKETA INTERESIK GABE*

Kontsultatu gure tarifak hemen:
www.clinicaekoden.com

* 36 hilabete baino gehiagorako finantzaketarako, banku-finantzaketa kudeatzen dugu. R.P.S. 44 / 14

Arkotza, 4-behea • Durango • T. 94 621 78 22

Txakurrak solte eramateko ibilbideak zehaztu ditu udalak

Kaleko gorotzak gutxitzeko, txakur kakak batzeko zorro bereziak atera ditu



Hilerrirako bidean txakurrak solte eraman ahalko dira 21:00etatik 09:00etara.

BERRIZ Amaia Ugalde Berrizen 700 txakur inguru daude udalean erroldatuta. Txakurren eta pertsonen elkarbizitzan egon daitezkeen arazoak saihesteko, araudia landu dute udal arduradunek. Orland Isoird alkateak azaldu duenez, gai biri erantzuteko premia ikusi dute: batetik, txakurrek, solte daudenean, sortzen dituzten

arazoak eta, bestetik, kalean geratzen diren txakur kakak.

Hiru ibilbide eta aisialdirako beste hiru gune zehaztu dituzte txakurrak solte ibiltzeko. Ibilbideak honako hauek dira: ur depositutik Matzagarako bidea, Eliza ostetik hilerrirako bidea, eta hilerritik udal ortuak atonduko dituzten ingurura dagoen bidea. Azken horretan egun

osoz ibili ahalko dira txakurrak solte; lehen bi ibilbideetarako, ostera, ordutegiak ipini dituzte. Matzaga inguruan, udako ordutegia 20:00etatik 09:00etara izango da, eta negukoa 19:00etatik 09:00etara. Hilerriko ibilbidean, berriz, 21:00etatik 09:00etara ibili ahalko dira.

Ibilbideez gainera, landa batzuk zehaztu dituzte txakurrak solte ibiltzeko: udal ortuen lur sailaren alboan, Matzagabarrenan eta ur deposituaren ondoan daude zelai horiek.

Gorotzak batzeko kanpaina

Txakur kakak batzeko kanpaina ere abiatu du udalak. Txakurraren kartilla udaletxean erakusten dutenei zorro bereziak banatuko dizkiete. Txakurrak libre uzteko guneen ondoan, gainera, zakarrontzi bereziak ipini dituzte. Liburuxka bat banatzen hasi dira etxez etxe, kanpainaren nondik norakoak azaltzeko, eta, hilabetez, herri-jagole bat ibiliko dute kalean, txakurren jabeei informazioa emateko.

Zortzi etxebizitza tasatu salgai Margarita Maturanen

BERRIZ A.U.

Berriztarrentzat zein Berriztik kanpo bizi direnentzat, zortzi etxebizitza jarri ditu salgai Berrizko Udalak. Margarita Maturanen daude etxebizitza horiek; bost Berriz Susa sozietate publikoarenak dira, eta hiru, berriz, jabetza pribatukoak. Martxoaren 6ra arte egin dai-

Interesa dutenek martxoaren 6ra arte bete dezakete eskaera orria Berrizko udal bulegoetan

tezke eskabideak udaletxean. Baldintzak eta eskabide orriak udaletxean bertan eta www.berriz.org webgunean daude eskuragarri.

Logela bakarreko hiru etxebizitza, bi logelako lau eta hiru logelako etxebizitza bat dira salgai daudenak. 100.000 eta 148.000 euro arteko prezioak dituzte, eta etxe guztiak garajea eta trastelekua dituzte.

SEI HANKAKO MAHAIA

EIDER URIBE

Bildu



Gizonezkoen izenak dituzten kaleak

Kale bat izendatzerako orduan, Nazio Batuen gomen-dioa tokiko izenak (toponimoak) erabiltzea da. Durangoko kaleen izendegira baldin bagoaz, hogeitaz geroz, gizonen izenak dituzte, beste bostek gizonen izenak dituzte, eta emakumezkoen izenak dituzte, guztiak santuak.

2008. urtean udalak, beka baten bitartez, Durangoko toponimia ikertzeari ekin zion. Alberto Errazti Igartuak azterketa izugarri bat egin zuen, eta 10.150 lekukotasun jaso zituen, eta kale berrientzat izen toponimikoak proposatu zituen. 2011ko apirilko bilkuran erabaki zen gure kale izendegia Euskaltzaindiko arauetara egokitzea eta toponimia ikerketan jasotzen diren gainerako leku-izenak beste era batera bideratzeko batzorde berezi bat sortzea. Lau urte pasatu dira, eta ez da inolako batzorderik sortu. Bitartean, beste hiru kale berri izendatu dituzte: Ramon Rubial, Jesus Maria Leizaola eta Jesus Maria Pedrosa. Beste hiru gizonen izenak, gomendioei eta lan toponimikoari kasu egin barik.

Durangoko Berdintasuneko Udal Kontseiluak, emakumei egiten zaien diskriminazioa ikusirik, gure herriaren alde lanean ibili diren emakumeen zerrenda bat egitea proposatu du, kaleak, eraikinak, plazak... berdintasunera bidean jartzeko. Hurrengo asteartean eztabaidatuko da. Lan toponimikoa oso garrantzitsua eta baliagarria da, baina herri honetan ditugun gizonen izenez izendatutako kaleei beste irtenbide bat ematea ere bai. 2011n eratu ez zen batzordea eratuko omen da oraingoan, gure herriko mugimendu feministari esker. Goazen denon artean berdintasunerantz eramango gaituen Durango berri bat eraikitzea.

Korrika Batzordeak bertso desafioa antolatuko du

Martxoaren 13an Korrika 19 aurkeztuko dute



Hainbat Mallabitar batu dira Korrika Batzordera.

MALLABIA A.U.

Korrika bultzatzeko helburuagaz batzordea sortu dute Mallabian. Lantalde horren helburu nagusia Korrika Kulturalako egitaraua prestatzea eta herrian Korrikaren etorrera ezagutzaraztea da.

Martxoaren 23an iritsiko da Korrika Mallabira, beraz, dagoeneko zehaztu dituzte hurrengo hilabete bukaerara artean antolatuko dituzten ekintzak. Korrikaren aurkezpena martxoaren 13an egingo dute. Luntxa eskaintzeaz gainera, Korrika 18ko argazkiak proiektatuko dituzte. Bertso desafioa, Dalton-darren musika eta hitzaldiak ere aurreikusi dituzte.

Aurten, Korrika Urepeletik (Nafarroa Beherea) abiatuko

da, martxoaren 19an, eta Bilbon izango du helmuga, 29an. Bidean, Korrikaren lekukoak Euskal Herri osoa zeharkatuko du.

Elgetatik Elorriora sartzearaz batera helduko da Durangaldera. Martxoaren 23an, astelehena, ailegatuko da Korrika Elorriora, 13:05ean. Ondoren, Durangaldean hainbat kilometro egingo ditu, eta Mallabira 16:15ean helduko da. Herriatik pasatu ostean, Ermutik Eibarreara irtengo da.

Korrika Batzordearen helburu nagusia Korrika Kulturalako egitaraua prestatzea da

URTAXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK



Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

A. Urreta
podólogo

Podinara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behea
48200 - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

R.P.S. 21406



Lokalak etxebizitza tasatu bihurtzeko aukera egongo da Mañarian.

Lokalak etxebizitza gisa erabili ahalko dira

Jaioren arabera, ordenantza berria pauso bat da

MAÑARIA Joseba Derteano Beste herri batzuetako eredu jarraituta, lokalak etxebizitza gisa erabili ahalko dira Mañarian. Azken urteetan etxe gutxi eraiki dira, eta ez da promozio publikorik egon. Horrela, udalaren ustez, errekurtso gutxi duten pertsonak eta gazteek zail eduki dute etxe bat lortzeko. Endika Jaio alkatearen arabera, ordenantza berria aurre-pauso bat da: "Ordenantza honek ez du errekurtso gutxiko pertsonak eta gazteak etxebizitza duin bat lortzeko eskubidea erabat bermatzen. Baina, Mañarian horretarako dauden zailtasunak ikusita, pauso bat da". Joan zen barikuan onartu zuten ordenantza udalbatzarrean, aho batez.

Udal etxebizitza tasatuak Jaiok azaldu duenez, hiru helburu daukate. Lehena, "etxebizitza duin bat edukitzeko beste aukera bat zabaltzea".

Bigarrena, espekulazioa saihestea. Horretarako, eraldatzen diren lokalak udal etxebizitza tasatu bihurtuko dira, eta etorkizunean salduz edo alokatuz gero, prezio publikoaren arabera egin beharko dute.

Hirugarrena, merkataritza lokalei lekua gordetzea. Etxe blokeen beheko edozein lonjatan egin ahalko da etxebizitza, Kirikiño kalean izan ezik. Jaioren iritzi, "herriari bizia" ematen diote saltokiek, eta herriko kale nagusiko lokalak jarduera horretarako erreserbatuko dituzte.



Abadiñoako Independienteak, programarako ekarpenak biltzen

M24 Itsaso Esteban

Datorren astelehenerako eta eguaztenerako batzarrak deitu ditu Abadiñoako Independienteak taldeak, hauteskunde programarako herritarren ekarpenak jasotzeko. Traña-Matienako Errota kultur etxean egingo dute otsailaren 23ko batzarra, eta Zelaietako Txanportan, 25ekoa. Biak ere 19:00etan.

Bestela ere, Abadiñoako Independienteak taldeak ohar bidez

azpimarratu du AI alderdiak maiatzeko hauteskundeetara aurkeztuko duen programarako ekarpenak egin gura dituzten herritarrek martitzenero taldearen egoitzara -Traña-Matienako Erezena kaleko lokalerak- bertaratu daitezkeela. Martitzenero jasoko dituzte herritarren proposamenak eta iritziak, 19:00etatik aurrera, alderdiaren egoitzan.

Otsailaren 23an eta 25ean egingo ditu AI alderdiak herritarren ekarpenak jasotzeko batzarrak

'Elorrio zuretzat': herritarren iritzia entzuteko EAJren prozesua

M24 Markel Onaindia

Elorrio zuretzat prozesuagaz EAJk herritarren iritzia en-

tzungo du hauteskunde programa osatzeko. Joseba Mujika hautagai duen alderdiak batzarrak egingo ditu elkarteekin: hilaren 23an kirolekoekin, 24an kulturakoekin eta 25ean gizarte arlokoekin. Ateneoan izango dira, 19:00etan. Batzokian eta sare sozialetan ere jasoko dituzte proposamenak.



Jose Landa (EAJko udal batzarreko presidentea) eta Mujika, Batzokian.

> DURANGALDEA ASTEON

'Mindful' meditazio teknika tailerra

ZORNOTZA > Gurasoek *mindful* erlaxazio teknika euren seme-alabekin zelan landu ikasi ahalko dute martxoaren 2an, 9an eta 16an, 18:30etik 20:00etara, Zelaieta zentroan eskainiko den tailerrean. Soraya Díez psikologoa izango da irakaslea. Otsailaren 26a da izena emateko azken eguna, eta 20 euro balio du.

Budapest-Praga bidaia nagusientzat

DURANGALDEA > Amankomunazgoak, nagusiei zuzenduta, Budapest (Hungaria) eta Praga (Txekiar Errepublika) ezagutzeko bidaia kulturala antolatu du ekainaren 28tik uztailaren 5erako. Izen-ematea otsailaren 27an amaituko da (946 200 546) eta plazak martxoaren 4an zozkatuko dituzte, 10:30ean, Behargintzan.

'Abadiño sex' tailerren balantzea

ABADIÑO > *Abadiño sex* izeneko programaren lehenengo urteren balantzea egin du Abadiño-ko Udalak. 2014an, 10 eta 16 urte arteko 150 gaztekin parte hartu dute sexualitateari buruzko tailer horietan. Sexualitateaz, maitasunaz, harreman motez eta genero berdintasunaz jardun dira saioetan.

> Iritzia

Otxandion, Euskal Bidean aurrera eginez

"Indar politiko eta sozial guztion artean akordio txikiak egin behar ditugu, akordio txiki horiekin Euskal Herriak behar duen bidea egin dezan". Ideia hori dago, hain zuzen, EH Bilduk proposatzen duen Euskal Bidearen jatorrian. Bada, Durangaldeko mutur bateko Otxandion herrian lortu dugu leitmotiv hori praktikan jartzea. Otxandion erdietsitakoak badu potentzialitate nabarmena. Izan ere, nekez topatuko dugu antzeko adibiderik gure ingurunean. Eta adibide falta hori ez da gertatzen, hain zuzen, EH Bilduk ez duelako Euskal Bidean, Euskal Herriak egin behar duen bide propioan, aurrera egiteko borrokanterik. Otxandion, akordio txiki baina garrantzitsua lortu dugu EH Bilduk eta EAJk, herri honek bizi duen gatazkaren harira hausnarketa partekatua eginez. Hain zuzen, urtarrilaren 12an Guardia Zibilak egindako *Mate* opera-

zioa salatzeko, Otxandionko Udalean mozio bateratua adostu eta onartu genuen bi alderdiok. Horretaz gainera, Espainiako Estatuak darabilen jazarpen politikaren eta herri honek aurrera egin ez dezan jartzen dituen oztopoen aurka indarrak batu genituen. Ez hori bakarrik, udalean akordioa lortzeaz gainera, adostasun politiko hori kalera atera genuen elkarrekin: onartutako mozioa etxe guztietara eramanez genuen bi alderdietako kideok. Alegia, Otxandion, Euskal Bidea naturaltasunez jarri genuen praktikan joan den astean. Espainiak urte askoan darabilen errepresio bidearen gainera, euskal herritarrok geurea. Honako hau herri mailako urrats txiki bat izan da, baina uste dugu balio duela jabetzeko posible dela alderdien interesen gainera Euskal Herriak behar duen bidea denok lehenesteko.

Eskerrik asko!

Joan zen igandean, otsailak 15, Angelman Sindromearen Nazioarteko Eguna izan zen. Angelman sindromea gaixotasun neurogenetiko arraro bat da, 20.000-30.000 ume jaioberritatik bati eragiten diona. Gaixotasuna 15. kromosomaren mutazio baten ondorioa da, eta hori daukaten umeek hurrengo ezaugarriak dituzte: atzerapen mental sakona, hitz egiteko gaitasun eza, mikrozeftaliak, konbultsioak, ataxia, eta beti irribarretsu eta pozik daudela ematen du.

Durangon nire semea den Jonek dauka gaixotasun arraro hau. Diagnostikoa ezaugutu genuenean, Angelman Sindromea elkartearekin bat egin genuen, eta elkarrekin martxan jarria zeukan mugikor eta tablet zaharrak batzeko kanpaina Durangaldean zabaltzen hasi ginen. Kanpaina horretatik ateratako diruak gaixotasu-

naren ikerketarako, eta gaixoen eta familien bizi baldintzak hobetzeko balio du.

Angelman Sindromearen Nazioarteko Eguna izan berri dela-eta, eskerrak eman nahi dizkizuegu lagun, ezagun, ezezagun, erakunde publiko, udal, eskola, ikastola, dendari eta abar luze bati, kanpaina honetan zuen aldetik eduki dugun harreman eta laguntza izugarriagatik. Kanpaina hasi genuenetik ia 8.000 mugikor eta tablet batu ditugu Durangaldean, eta horiei esker 12.600 euro inguru lortu ditugu, elkartera eta gaixotasun arraro honen ikerketara zuzendu direnak.

Jonen partez, familiaren partez eta gaixotasun honen inguruan bizi garenon partez, eskerrik asko benetan eman diguzuen eta ematen jarraitzen diguzuen laguntzarengatik.

Oier Perez Balanzategi - Durangaldeko Euskal Herria Bildu.

Idurre Baraia Zubiaurre



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9, 48215
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenaren sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (lartekak barne).

► Berbaz

Itsaso Gangoitia, Meritzel Etxagibel eta Gorka Madrazo | Berbaro euskara elkarteko kideak

“Gazteek, euskararen erabililerari buruz hausnartzean, erreakzionatu egiten dute”

Berbaro ‘Zergatik ez?’ tailerra ematen dabil Durangaldeko ikastetxeetan, euskararen erabilera bultzatzeko



► **BERBAZ** Jone Guenetxea Gaia edozein dela ere, gazteak kontzientziatzea ez da erraza, baina ahalegina egin beharra dago. Euskararen erabilera eragin guran, DBHko 4. mailako eta batxilergoko ikasleekin ‘Zergatik ez?’ motibazio tailerrak eskaintzen dabilta Itsaso Gangoitia, Meritzel Etxagibel, eta Gorka Madrazo Berbaro euskara elkarteko gazte arloko kideak.

Zer da ‘Zergatik ez?’ tailerra? **Gorka Madrazo:** Euskararen erabilera eragiteko tailer bat da. Bakoitzak bere egunerokotasunean zein hizkuntza erabiltzen duen hausnartzea da helburua. Euskara erabiltzeko motibazio saioak dira. Orokorrean, euskararen egoera zein den aztertzen dugu, eta, ondoren, bakoitzaren

errealitateari buruzko gogoeta egiten dugu.

Zenbat gazte gazte zabiltzate lanean?

G.M.: 4. DBHko eta batxilergoko 25 taldetan gabiltza Durangalde osoan. Talde bakoitzagaz hiru lansaiogaitan egiten ditugu.

Tailer hau gazteei bakarrik zuzendua dago?

Meritzel Etxagibel: Orain arte gazteekin ibili gara, baina beste arlo batzuetara zabaltzeko asmoa dugu. Merkataritzan eragin gura genuke, baita beste eremu batzuetan ere.

Zelan sortu da tailer hau emateko aukera?

Itsaso Gangoitia: Topaguneak sortutako tailer baten eta hainbat euskara elkarteren bidez

“Gazteekin gabiltza lanean, baina beste arlo batzuetara zabaltzeko gura dugu”

“Gazte batzuk kontzientziatuta eta lanerako prest daude”

sortu da. Ikastetxeetan ematen gabiltzan saio hauek Amankomunazgoak finantzatu ditu.

Zelako esperientzia dabil izaten?

G.M.: Orokorrean gazteek oso harrera ona egiten digute. Sarritan, gaiari ez diote garrantzirik ematen, baina momentu batean konturatzen dira datuak zer-nolakoak diren. Gaiaren inguruan pentsatzen hasten direnean erreakzionatu egiten dute. Era berean, aurretik ere kontzientzia hori duten ikasleekin ere topo egiten dugu.

M.E.: Tailerrak aukera ematen dizu euskararen erabilera inguruan pentsatzeko eta sentsibilizatzeko.

Euskararen erabilera gazteen arduraren artean dago?

M.E.: Datuak plazaratzen ditugunean, gehienak arduratu egiten dira, eta gogoeta egiten dute. Adibidez, Euskal Herriko gazteen %75ek euskaraz dakite, baina erabilera %14koa da. Euskal Herri mailan, %42k euskaraz daki, baina erabilera %14koa da. Ezagutzaren eta erabilera arteko aldea zein den jakinarazten diegu.

I.G.: Gainera, gazte batzuk oso kontzientziatuta daude, eta prest daude lanerako edo nolabait eragiteko.

G.M.: Sarritan, euskara alde negatibotik lantzen dugu, eta, hirugarren saioan, gai hori alde positibotik lantzen dugu. Munduko 30 unibertsitateetan euskara lantzen da. Munduan zabaldua dauden euskal etxeei buruz hitz egiten diegu. Hiztun kopuruari dagokionez, 6.900 hizkuntzatatik 247. hizkuntza da euskara. Horrelako datuak azaltzen dizkiegu. Gainera, sare sozialak erabiltzen dituztenez, sare sozialetan ere euskaraz jardun daitekeela gogorarazten diegu.

Gazteei zein eredu transmititzen diegu?

G.M.: Ume askori gurasoek euskaraz egiteko esaten diete, eta euren artean gaztelaniaz egiten dute. Eredu horrek eragin handia du umeengan. Telebistaz ikusten dugunak eta inguru osoak eragiten du.

I.G.: DBHko ikasleen adinean,

gurasoak beharrean, telebistako protagonistak, aisialdiko hezitzaileak eta kiroltako entrenatzaileak dira erreferente.

Ikastetxe askotan, gazteak euskara batzordeetan daude antolatuta.

M.E.: Sentsibilizatu den gazteak euren ikastetxeetako euskara batzordeetan dabilta. Batzorde horiekin hartu-emanen jarri, eta elkarlana bultzatzeko proiektu bat martxan jartzeko asmoa dugu. Talde hori handitzen joatea da asmoa. Denok helburu bera dugu: euskarazko guneak sortzea eta euskaraz bizitzea. Beraiek eskolan eragiteko helburua dute, eta guk, berriz, herrian eragiteko. Beraz, batzordeak beraien artean elkartu, eta komunitate bat sortzea da helburua.

G.M.: Arnasguneak sortu gura ditugu, esperientziak elkarrekin trukatu.

Zein ikastetxetako euskara batzordeekin zabiltzate lanean?

I.G.: Kurutzagaz, Frai Juan Zumarragaz eta Orobiogoiitaz hasiko gara.

M.E.: Apurka-apurka hasi gura dugu. Proiektu berria denez, hiru ikastetxe aukeratu ditugu, baina haztea da asmoa. Zentro batzuetan Euskara Batzordeak urtetan dihardu, beste batzuetan sortzen dabilta...

Euskararen erabilera bultzatzeko egunerokotasunean zein pauso eman ditzakegu?

I.G.: Euskalguneak sortzea, euskaraz disfrutatzea...

G.M.: Askotan, euskaldunok txikitu egiten gara egoera zehatz batzuetan. Lehenengo berba euskaraz egitean, esate baterako.

M.E.: Erdaldunen bat tartean badago, gazte askok errespetu faltagaz lotzen dute euskaraz berba egitea. Baina errespetu falta zein aldetatik dator?

G.M.: Bi aldeetatik landu beharreko gaia da. Gure jarrera indartu behar genuke, eta gure egunerokotasunean euskara erabili, eta beste ere eskaini egin behar diegu euskaraz ikasteko aukera. Euskaraz gutxi dakiena batzuetan beldurrez ibiltzen da berba egiteko, eta espazioa eta lasaitasuna eman behar diogu euskara erabili dezan.

Itsaso, Berbaroko gazte arloan hasiberria zara. Zer moduz?

I.G.: Oraindik kokatzen nabil, baina oso gustura. Orain arte hezitzaile ibili naiz Berbaro elkartearen inguruan eta euskalgintzan, orokorrean.

Mikel Urdangarin | Musikaria | Zornotza, 1971

“Hamazazpi urteotan ez naiz inoiz bakarrik egon taula gainean”

Hurrengo diskoa urtebete barru grabatzea espero du zornotzarrak

> MUSIKA Eneko Azurmendi

Bihar kontzertua eskainiko du Mikel Urdangarinek Durangoko Platerue-na Kafe Antzokian, gaueko 22:30ean. Otsailaren 8an hasitako biraren parte da emanaldia, eta berak bakarrik joko du, taldekideen laguntzarik gabe.

Bira bat egiten duzun bakoitzean, ezin etxetik gertu jo gabe geratu.

Etxetik ez naiz pasako, baina inguruko herrietatik bai: Durango, Gernika... Hainbat lekutan joko dut, baina distantziak herri honetan oso laburrak dira.

Zer du berezi etxetik gertu kontzertu bat eskaintzeak?

Niretzat jotzea bera, etxetik gertu zein etxetik urrun, beti da berezia. Kontzertu bakoitza ospakizun bat da, eta horrela bizi ditut emanaldiak. Etxetik gertu, agian, gertutasun horrek zer edo zer berezia ematen dizu. Hala ere, gaur egun, gure kontzertu gehienak Euskal Herrian izaten dira, eta distantzia afektibo hori edo dena delakoa leku guztietan laburra da. Baina azpimarratuko nukeena da kontzertu guztiak direla berezi niretzat.

Zergatik erabaki duzu orain kontzertuak bakarka eskaintzea?

Orain sentitzen dut dela horretarako sasoa. Nire lagunak eta gertukoak badakite aspalditik eduki dudala bakarrik jotzeko ideia buruan, baina gauza bat dela, bestea dela, ez dut pauso hori eman. Diskoak etorri direlako, kolaborazioak etorri direlako edo beste edozein aitzakia tarteko, beti bazter batera utzi dut ideia hau. Aurreko biran, *Jainko txiki eta jostalari hura* izenekoan, hasi nintzen pentsatzen sasoa dela hau egiteko. Bestalde, lehen nire burua ez nuen hain prest ikusten, eta batzuetan hori izaten da arrazoia. Beharbada, gitarrak eta norberak osatutako bikotean konfiantza handirik ez... Edo batek daki zergatik! Baina oraingoan animatu naiz.

Arraroa da formatu honetan jotzea?

Bada arraroa, bai. Beti izan naiz bakarlaria, baina beti egon naiz taldeagaz. Hamazazpi urte hauetan ez naiz sekula bakarrik egon taula gainean. Jendeak pentsatzen du hasieran bakarrik ibiltzen nintzela, baina ez da egia, beti eduki izan dut norbait alboan. Eta bakarrik jotzearen arrazoi handi bat da sekula ez dudala horrelakorik egin; bakarlaria naizela kontuan izanda, bakarrik irteteko gogo du. Niretzat berria izango da, eta espero dut jendearentzat ere berria izatea.

Zer moduz biran?

Oso gustura nabil. Oso harrera ona izan dut, bete egin dira aretoak. Baina normalean ohituta nago lagunduta egotera, eta orain taula gainean eta jendearen aurrean bakarrik egoteak beste inpresio bat eragiten dit, beste era batera ikusten ditut gauzak. Hala ere, oso pozik, oso giro polita egon zen, jendea oso gainean eduki nuen. Azken finean, nire ardura kontzertu guztietan ahalik eta kontzertu indartsuena jotzea da, eta bakarrik egonez gero, oraindik ere ardura handiagoa da. Saiatzen naiz ez dadila izan kontzertu laua eta lineala, bai zik eta emozioak sortzen dituen.

Aurreratu dezakezu zer aurkituko duen entzuleak Durangon eskainiko duzun kontzertuan?

Hasi naiz erreperitorio batez, baina ezin dut asko gehiago zehaztu. Hala ere, asmoa dut beti taldeagaz jo izan ditudan abestiak jotzeko, eta berritasuna da instrumentu batzuk faltako direla. Azken finean, abesti horren jatorria erakustea da asmoa: gitarra eta ahotsa. Esan dezakedana da aspaldiko kantuak berreskuratuko ditudala eta atzera begirako irakurketa bat egiten saiatuko naizela.

Zer da horrelako kontzertuekin bilatzen duzuna?

Nik uste dut kontzertu guztietan bilatzen duzula gauza bera; hau da, komunikatzea, taula gainean zaudela zure eta publikoaren artean zubi ikusezin hori eraikitzea. Muskarion obligazioa da, beharbada, lehenengo pauso hori ematea, baina taula gainera emozioak sortzeko ateratzen gara, bestela ez dauka zentzurik. Azkenean, zuk jendearengana heldu nahi duzu, modu on eta sakonean betiere. Taldeagaz beti izan da asmo bera, eta orain bakarka ere bai. Gertatzen dena da bakarka diskurtsoa desberdina dela. Gertuagokoa da, ni naizelako erreferente bakarra, eta jendearentzat ere irisgarritasun hori desberdina da.

“*Kantuak grabatu aurretik erakutsi nahi ditut, inoiz ez bezala*”



Orokorrean, giro ezberdina da taldeagaz jotzean edo bakarrik jotzean sortzen dena.

Disko berriaren aurkezpen moduko bat ere bada bira hau, ezta?

Bai. Eta bira honetan gauza bat egin behar dut sekula ez dudana egin. Abestiak beti erakutsi ditut grabatu eta gero. Jendeak beti ezagutu ditu abestiak taldeagaz. Orain kantuak grabatu aurretik erakutsi nahi dizkiot entzuleari, abestien sorreran, gitarra eta ahotsean. Gogotsu nago jendearengan horrek zer erreakzio sortzen duen jakiteko.

Zer itxura hartzen diozu diskoari?

Oraindik oso hastapenetan nago, eta urtebetera-edo publikatzea aurreikusten dut. Hala ere, konpromiso gabe hartu nahi dut hau, heltzen banaiz ondo, eta, bestela, hu-


rrengo urterako utziko dut. Baina asmoa hori da, urte bukaeran disko bat osatzea, bira honetan batutako kantuekin. Beraz, ezin dizut esan zer itxura hartzen diodan. Orain ilusionatuta nago, eta irrikaz kantuak erakusteko. Nahiz eta gezurra dirudien, taula gainera bakarrik irtetea gauza berria da niretzat, eta horregaz nahikoa daukat.

Kuriositate moduan, Gasteizko zure tabernan ere eskaintzen dituzu emanaldiak.

Bai, baina oso saio informalak izaten dira, lagunartekoak. Tarteka etortzen dira musikariak formatu txikian, bakarka edo binaka, emanaldiak eskaintzera, baina nik jotzen dudanean oso modu informal eta xaloan izaten da, goizean elkarri deitu eta iluntzean jo.

Eskulturak, argazkiak eta bideoak bildu ditu Iñigo Garatuk Eibarren

Eibarko Portalea kultur etxean egongo da, martxoaren 1era arte, Garaturen lana



2013an Durangoko Arte eta Historia Museoa erakutsi zuen Garatuk bere lana.

> ARTEA Itsaso Esteban Eibarko (Gipuzkoa) Portalea kultur etxean egongo da, martxoaren 1era arte, Iñigo Garatu (Iurreta, 1990) artistaren lanean osatutako erakusketa ikus-

gai. Astelehenean egin zuten Iurretako artista gaztearen eskultura, argazkigintza eta bideo lanak biltzen dituen erakusketa horren inaugurazio ekitaldia. Hain justu, Garatuk azken hi-

ru urteetan egindak sorkuntza lanaren isla da Eibarko kultur etxeko erakusketa.

Hormigoia eta zementua baliatuta egindako eskulturak, zein margogintza eta argazkigintza lanak ere biltzen ditu erakusketak. Iñigo Garatu artista gazteak hainbat arte adierazpideetan lan egiteko duen joeraren erakusle da Eibarko bilduma.

Iñigo Garatuk azken urtean esku artean eduki duen proiektuaren isla ere bada Eibarko. Bilbaoarte Fundazioaren beka lortu zuen 2014an, eta horri esker gauzatu duen ikerketa artistikoaren aurrerapena egingo du Portaleako erakusketan. *Espacios de trabajo* izenburua du proiektu horrek. Egileak azaldu duenez, uztailean erakutsiko du ikerkuntza artistiko horren emaitza osoa.

Humanitates programarako izen-emate epea zabaldu dute

> IKASTAROAK

Durangoko Udalak EHUren laguntzagaz antolatzen du Humanitates programa. Aurten, Artearen Historia, Munduaren Historia Laburra eta Musikaren Historia ikastaroak eskainiko dituzte programa horren barruan, eta martxoaren 2ra arteko epea eman dute matrikula egiteko. Martxoan, apirilean eta maiatzean izango dira saioak, eta landuko diren gaietan adituak diren profesionalek emango dituzte. Kuruzesantu Museoa egingo dute Musikaren Historiari buruzko ikastaroa, eta Etxezarreta jauregian, Munduko Historia Laburra eta Artearen Historia izenburukoak. 25 eurokoa da ikastaroen matrikularen prezioa, baina langabeek eta 25 urtetik beherakoek 15 euroan eman ahalko dute izena.

GEURE DURANGALDEA

JOSUNE ARANGUREN

Kultur teknikaria



Queer teoriak

Jende askok uste du emakumeok ez dugula ilerik. Badugu, baina kendu egiten dugu. Portaera guztien azalpena eman beharra dugu, gizakiok ez baitugu aitzakia biologisten ostean ezkututzerik. Portaera ez da geneen programazioan dagoen ezer, baizik eta gure esperientziak sortu duen pentsaera baten ondorio. Kultura da, ez natura.

Gauza bera da sexua. Queer teoriagileek –eta lehenago LGBT mugimenduak– azaldu digute gizarte-erakuntzaren ondorio dela hori ere. Horrek desberdintasunak, bazterketak, patologizazioak eta gorrotoa sortzen ditu bikotasuna, rola eta estereotipoak sortu ahala.

Aristotelesi ikasi genion ezaugarri fisikoan arabera izakiak sailkatzen. Sailkapenetatik kanpo geratzen zirenak munstroak ziren. Eta dira. Aristotelesen jarraitzaile dira eskola-mutikoari eserita txiza ez egiteko esaten dion hezitzailea edo bularretakoa ez erabiltzeagatik andreari barre egiten dion laguna edo homofobia genero biolentzia ez dela dioen legegilea. Etengabe –eta nahigabe?– ari gara genero politikak egiten. Denok.

Sexu, genero identitate, generoaren espresibide eta joera sexual desberdinen artean konbinazio anitzak onartzeko prestatzen hasi behar dugu pixkanaka. Plan-teamendu biologistak gaitasuna garatu beharrean gaude. Begirada aldatu behar dugu espiritu kritikoak bagara. Aldaketa garaia da. Kulturaren ere bai, balioen aldaketan eragiteko gaitasuna duelako.

<http://www.josunearanguren.blogspot.com.es>

‘Secret fires’ diskoa aurkeztera dator Arizona Baby hirukotea Elorriora

Otsailaren 27an, 22:00etan hasiko da kontzertua, Elorrioko Arriola antzokian



Valladoliden sorturiko proiektua da Arizona Baby.

> MUSIKA

Country eta folk estiloa, zein psikodelia uztartzen dituen Arizona Baby taldearen kontzertua izango da, otsailaren 27an, Elorrioko Arriolan. Iaz argitaratu zuen diskoa aurkeztera dator Valladolideko (Espainia) hirukotea Durangaldera, eta, datorren barikuan, 22:00etatik aurrera joko du Elorrioren. *Secret Fires* izena du taldearen hirugarren diskoak, eta lan horretako kantak zuzenean eskaintzen dabil estatuko areto eta antzokietan, azken hilabeteetan.

Kanta berriei R.E.M. edo The Beatles-en eragina nabari zaiela esan dute hainbat musika kritikaririk

Secret Fires izeneko diskoan, azken urteetan jorratutako folk, country eta psikodelia doinue-tatik beste melodia eta erritmo

batzuetara egin du jauzi hirukoteak, eta rocka eta popa uztartu ditu oraingoan. Hainbat musika kritikariren berbetan, besteak beste, R.E.M. eta The Beatles tal-

deen edo Bob Dylan musikariaren kanten oihartzunak nabari dira taldearen azken lanean. Javier Vielba, Rubén Marron eta Guille Aragón taldekideen

berbetan ere, gitarra akustikoen presentzia oraindik nabarmena den arren, bestelako bideetatik abiatu gura izan dute *Secret Fires* lana osatzeko.

Sanagustinale, 12 - 48200 Durango
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

El cielo ahora
Olatz de Andrés

Martxoaren 1ean
19:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA

dantza garaikidea

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

HERRITARREN BORDONATEAK JOSITAKO ISTORIO BAT

JOSTUNAK

OTSAILAK 20
20:30ean DOAN
JOSTUNAK DOKUMENTALA

OTSAILAK 21
5€
PIANO NAIZ HAURRENTZAKO ANTZERKI LABORATEGIA

OTSAILAK 21
20:30ean 10€
MIKEL URDANGARIN MUSIKA KONZERTUA

2015eko

ASTE SANTUAN OLGETAN egonaldia

Norentzat

3-10 urte bitartekoentzat (2005-2011 urte bitartean jaiok)

Datak

Martxoak 30, 31, apirilak 1, 7, 8, 9 eta 10
(Egun solteetan izena emateko aukera)

Orduetgia

9:00-13:30

Lekua

Pinondo Etxea

Prezioak

+ Egun 1: Bazkideak 12€
Ez bazkideak 15€

+ Egonaldi osoa: Bazkideak 70€
(7 egun) Ez bazkideak 90€

Izen-ematea

Berberoren bulegoan martxoaren 18a baino lehen.
Plaza mugatvak!



Gozatu olgetan euskaraz berbetan!

Berbaro Elkarte: Pinondo plaza 1, 1.solairua / 946202540 / www.berbaro.eus / aisialdia@berbaro.eus

Aitor Monje 'Mudoh' berriztarraren doinu elektronikoak eta irudiak, Kultur Etxean

Sevillako I Am Dive taldearen aurretik joko du Aitor Monjek, bihar, 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean

> MUSIKA Itsaso Esteban
Lehenengo aldiz ariko da Aitor Monje *Mudoh* bere herriko kultur etxean, bihar. Berak sortutako musika elektronikoa eskainiko du. Ez da ohiko kontzertua izango, eta Monjek uste du emanaldira hurreratzen denak sorpresa hartuko duela. Musika maite duenak eskertzen du honelako aukera bat. Monjek azpimarratu du, "aurreiritzi barik joanez gero, hainbat talde ezagutzeko aukera ematen duela Berrizko Kultur Etxearen eskaintza oparoak". *Zenbaki* diskoa aurkeztuko du Berrizen, Monjek. Musika eta irudiak uztartuko ditu, eta ordu erdi inguruko emanaldia eskainiko du, I Am Dive taldearen aurretik.

Orain lau urte inguru sortu zuen *Zenbakiak* diskoan, "zenbakiei omenaldi bat" egin zien *Mudoh* musikariak. Ariketa gisa proposatu zion bere buruari,

kantei 1etik 10era arteko zenbakiaren izenburua ematea, eta kanta bakoitzari bere izenburuagaz loturiko iraupena ematea.

Musikagaz entzuleak zerbait sentitzea da Aitor Monjek gura duena; berak sorturiko soinu-paisaia barneratu dadila entzulea, eta sentsazioak bere azalean bizi ditzala: "Sorkuntzaren atzean beti dago sentsazio bat, eta hori sorrarazi gura dut entzulearengan: izan hotza, izan beldurra, izan berotasuna...".

Yakuzi taldean, ostera, gitarrista da Aitor Monje, eta musika elektronikoak bezala, gitarrak ere jarraitzen du bere bizitzan presente egoten: "Momentuz, gitarra arpegioak eta akordeak jotzeko bakarrik dakit erabiltzen; hau da, gitarragaz disko bat egiten badut, ordena logiko eta erritmiko bat emango diot ia nahi gabe. Elektronikan, aldiz, hasieratik sartu naizenez



Ordu erdi inguruko emanaldia eskainiko du musikari berriztarrak, eta musika eta irudiak uztartuko ditu.



Yakuzi taldeko gitarrista da Aitor Monje, eta bakarkako proiektua du 'Mudoh' izenekoak.

beste mundu batean, errazago apurtzen ditut egiturak".

Aitor Monjek kontatu duenez, Pink Floyd entzuteagaz batera hasi zen, 1980ko hamarkadan, musika elektronikorantz

gerturatzen. Eta, gutxinaka-gutxinaka, sintetizadoreak eta giro-musika ezagutzen hasi zen. Brian Eno, Pan Sonic taldea eta, Euskal Herriko kasuan, Amsia aipatzen ditu *Mudoh* musika-

riak elektronikaren arloan erreferentziatzen.

1990eko hamarkadan hasi zen musika elektronikorekin arloan bere sorkuntza garatzen. Probak egiten. Orduetik hona, software-agaz eta mugikorragaz grabaturiko eguneroko bizitzako soinua baliatzen ditu, besteak beste, kantak sortzeko.

Bilbon bizi da Monje, eta musika elektronikorekin zaletasuna partekatzen duen jendea dauka inguruan. Azaldu duenez, orain hurrengo diskoan dabil lanean. Antzezlan baterako musika sortu du, eta lan hori diskoan jaso gura du.

Bestalde, Yakuzi taldearen proiektuari buruz galdetuta, taldea etenaldi batean dagoela azaldu du berriztarrak: "Denbora faltagatik, une honetan ez gara gai astean behin elkartzeko, baina espero dugu egunen batean berriro ere taldekideon agendak uztartu ahal izatea; izan ere, elkarrekin jotzeko grina hor dago".

Jende tristearentzako dantzarako musika

I Am Dive Sevillako bikotea ere ariko da Berrizen



Irudiak proiektatzen ditu I Am Dive taldeak ere, zuzenekoetan.

Esteban Ruiz eta José A. Pérez Sevillako musikarien proiektua da I Am Dive. Iazko azaroan kaleratu zuen bikote horrek *Wolves* izeneko bigarren diskoa, eta bertako kantak zuzenean eskainiko dituzte Durangaldean. Bihar, 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean eskainiko dute kontzertua. "Jende tristearentzako dantzarako musika" egiten dutela esaten dute I Am Dive taldeko musikariak: norbaitek horrela definitu zuela euren musika behin, eta gustuko dutela definizio hori. Entzulearen buruan irudiak sortzen dituzte taldekideek; paisaia melodikoak eratzten dituzte, eta gogo aldarte bereziak sortu entzulearengan.

Besteak beste, sintetizadoreak, programaturiko soinu baseak, gitarrak eta pedalak erabiltzen dituzte euren musika sortzeko. Musikagaz batera, gainera, irudiak ere proiektatzen dituzte zuzenekoetan.

Wolves izeneko hamar kantako diskoa da bikoteak Berrizko kultur etxeko kontzertuan eskainiko duena: giro-musikaren bidea urratzen duten kantak biltzen ditu, folka, popa eta rocka uztartuta.

Urte amaieran Japonian egin duten biran aurkeztu dituzte I Am Dive taldeko bi kideek euren bigarren diskoko kantak. AEBetan ere eskaini izan dute euren musika: bira egin zuten herrialde hartan.



- HEKI -
HERRI KIROL KLUBA
- 656 782 552 -
heki.iurreta@gmail.com

Umeentzako eta nagusientzako erakustaldiak eta antolaketak

katerin
ardoak
iñaki
uribe



Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

**Jimi Rojas** (Berriz, 1963) **Laureano Lara** (Durango, 1966) | Borrokalariak

“Ez da erakustaldi borroka izango, benetako borroka baizik”

Bihar, gaueko 22:00etan, Durangoko Jai Alai pilotalekuan izango da Lararen eta Rojasen arteko borroka

> KICKBOXINGA Martxel Zubia Laureano Lararentzat eta Jimi Rojasentzat azkeneko borroka ofiziala izango da biharkoa. Biak kickboxing entrenatzaileak dira, eta borroka aukera ezin hobea dela esan dute.

Elkarren kontra borrokatzea proposatu zizuetenean, zerk animatu zintuzten baiezkoa ematera?

Laureano Lara: Guk egiten duguna egin ahal dutenei atea zabaltzeko aukera oso ona delako esan nion baietz. Azken finean, guk biok kickboxing eskolak ematen ditugu astero, eta, geuk ez badugu hau egiten, ez dugu jendea bultzatzen gauza bera egitera.

Denbora dezente daramazue modu ofizialean borrokatu gabe. Gogorra da txapelketa mailako entrenamenduetara bueltatzea?

L.L.: Bai, nahiko gogorra da. Fisikoki ez gaude txarto, baina ez ring batera edo kaiola batera sartzeko moduan, eta, beraz, bai, entrenamenduak nahiko gogo-

rrak izaten dabilta.

Jimi Rojas: Horretaz gainera, dagoeneko 50 urte inguru ditugu, eta ez 30: nik 49 eta berak 51. Normala den bezala, nik 30 urte gaz egiten nituen gauzak orain ezin ditut inondik inora egin. Mugak dauzkate alde horretatik. Esperientzia gehiago dut, baina mugak hor daude.

Zelako entrenamenduekin zabiltzate prestatzen?

L.L.: Entrenamendu normalak egiten nabil: zakua erabiltzen dut, korrika pixka bat egiten dut eta, fisikoki ondo jartzeko, *sparring* baten laguntza daukat.

J.R.: Nik ere Laureanoren antzeko entrenamendua egiten dut, aldaketa batez. Belaunean arazoak ditut, eta hori dela-eta ezin dut korrika egitera irten. Korrika egin beharrean, bizikleta eta igeriketa egiten ditut sasoia hartzeko.

Aspaldiko lagunak zarete eta inoiz ez duzue elkarren aurka modu ofizialean borrokatu. Zelan prestatu duzue borroka?

L.L.: Ni psikologikoki prestatu-

ta nago. Laguna da, eta Jimi eta nire artean arau batzuk izango ditugu bata bestearen gainetik ez jipoitzeko. Baina borrokaldian kontaktua egongo da, noski, eta bertaraten direnentzako borroka polit bat eskaintzeko asmoa dugu.

J.R.: Gauza bera pentsatzen dut. Beste bat izango balitz, segur aski gogorrago joko nuke, eta borroka gogorragoa izango litzateke.

L.L.: Borroka polita izan dadilana nahi dugu, ikuskizuna ematera joango gara.

“Dagoeneko 50 urte inguru ditugu, ez 30, eta adinak mugatu egiten gaitu”

Askok diote ez duzuela serio hartuko borroka, lagunak zaretelako. Bukatu hurrengo esaldia: “Ezetz knockoutik egon 100 euro jokatuko banitu...”

L.L.: Ez dakigu zer gertatuko litzatekeen.

J.R.: Horrelako borroka batean golpe txar batek borroka bukatzea eragin dezake.

Zuen bion arteko borroka ikusmin handia sortu du. Giro bikaina egongo da pilotalekuan. Ikuskizun on bat ematearen ardura daukazue ala motibazio estra bat da hori?

L.L.: Bietatik apur bat. Batik bat ez ditugulako 20 urte; adin horretan beste modu batera hartzen dituzu gauzak.

J.R.: Gure azken borroka ofiziala izango da. Nik nahiko nuke azken borroka hau jendeak gogoan izatea urte batzuk barru ere.

Borroka aurreko egun haue-tan, lehiatzen ibiltzen zineten garaiko irudiak etorri zaizkizue burura?

L.L.: Bai, horrela da. Niri, ring batera sartuko naizela pentsatzean, lehenengo irudiak etortzen zaizkit burura. Horretaz gainera, geroz eta gogotsuago nago borroka egunerako.

J.M.: Niri ere bai, lehenengo ostikoa ematen erakutsi zidana Laureano bera izan zelako.

L.L.: Eta orain berak emango dit ostikoa. Lagun asko harritu egiten dira gogotsu nagoela esaten diedanean. Galdetzen didate ea zelan gustatu ahal zaidan golpeak hartzea, eta nik esaten diet ez dela golpeak hartzea bakarrik. Golpeak hartu bai, baina eman ere egiten dituzu. Zaila da azaltzea, barruan eraman behar den gauza bat da.

J.R.: Entrenamendu askotan golpe oso latzak eman eta jaso ditugu, eta ez zaigu ezer gertatu, hementxe gaude.

“Laureanok irakatsi zidan nire lehenengo ostikoa ematen”

Biak ala biak borroka arteetako erreferente zarete. Laureano, zelan azalduko zenuke Jimi Rojas zer den eta zer izan den borroka arteen munduan.

Jimi, ring baten barruan, pertsona oso gogorra dela uste dut. Oso diziplantua da, eta, gainera, lagun oso ona eta ikasle ona. Adiskide, lagun eta artista martzial ona dela uste dut.

Eta, Jimi, zuk zer esango zenuke Laureano Lararen inguruan? Bera izan zen lehenengo ostikoa ematen irakatsi zidana.

Presion Break, beteranoen kluba Hirugarren Mailara igotzeko lehian

Euskal Ligako estreinako urtean berriro mailaz igotzeko borrokan dabil taldea



Presion Break areto futbol taldearen familia argazkia.

> ARETO FUTBOLA **J. Derteano** Presion Break lagun kuadrilla batek orain zortzi urte Berrizen sortutako areto futbol taldea da. Harrezkero ia jokalaria multzo berari eutsi diotenez, urtea joan eta urtea etorri, Euskadiko ligetako talderik beteranoenetakoa bihurtu da. Eta ezin daiteke esan lagun giroan oinarritutako talde egiturak txarto funtzionatu dionik. Zortzi urtean lau igoe-
ra lortu ditu, eta aurten ere Euskal Ligatik Hirugarren Mailara igotzeko borrokan sartuta dago.

Jonathan Herbella jokalaria 34 urte ditu, eta taldekide-rik gehienak adin horren bueltan dabilzala dio: “42 eta 44 urteko jokalaria bana ere baditugu. Egia esanda, Euskal Ligan ez da batere ohikoa gure adin tarteko jokalaria ikustea. Gehienetan 20-25 urte arteko gazteen kontra jokatzen dugu”. Aurten lesio asko izaten dabilza, eta, normala den moduan, sendatzeko prozesua ez da lehen bezain arina.

Apurka, gazteei atea irekitzen ari zaio taldea; orain urte bi

Sapuberrin ibili zen Yelko Uribe taldera batuko da, urtebete kanpoan ikasten eman ostean, eta erasoko jokoa indartuko du.

Lesio eta guzti ere, mailaz igotzeko borrokan bete-betean sartuta daude Berrizko taldeko jokalaria. Liga amaitzeko hamar jardunaldiren faltan, laugarren daude, eta hiru talde igoko dira. Sei puntura dute Legorreta taldea, eta asteburuan alde hori murrizteko aukera ona dute, partidu bi jokatuko dituztela-ko: gaur, 20:30ean, Durangoko

Landako kiroldegian Atxurre Bakioren aurka, eta, domekan, kanpoan, Eraso Aiararen kontra. Azken hori euritearen ondorioz atzeratutako partidua da.

Igotzeko eskubidea lortuz gero ere, ez dago argi igoe-
ra hori baliatuko luketen edo ez. Hirugarren Mailan gastu ekonomikoak asko hazten dira, eta arriskuak ditu. Esaterako, iaz Ermuak igotzea erabaki zuen, eta, gastuei aurre egin ezinda, taldea desagertu egin da aurten. Taldean “ilusioa dago”, dio Herbellak, baina, horretarako aukera badago, “ondo aztertu beharko dugu”. Orain urte bi uko egin zioten Maila Gorenetik Euskal Ligara igotzeari. Iaz, ostera, berriro igoe-
ra lortu, eta aukera baliatzea erabaki zuten, Berrizko Udalak lagunduta.

Federazioen erabakia

Joan zen asteburuan Bizkaiko eta Euskadiko federazioek bertan behera utzi zituzten futbol eta areto futbol jardunaldiak. Gai hori sakonean ez duela eza-
gutzen adierazi du Herbellak, baina “logikoa” dela uste du taldeetako jokalariek, entrena-
tzaileek eta enparauek Ogasu-
nean kotizatzea, eta federazioei autokritika eskatu die: “Dirua egitea besterik ez zaie ardura. Beti dabilza exigitzen, baina sekula ez daude emateko prest. Ez zaie ardura taldeak larri dabil-
tzen edo ez. Ez diot nik bakarrik, beste askok berdina uste dute”.

ADITUAREN TXOKOA



Unai Zamalloa

Saskibaloia

Tabirakoren zuzendaritza talde berria

Tabirako klubak ardurak eta larrialdiak bizi izan ditu, eta klubaren jarraipena kili-kolo egon da. Hala ere, zuzendaritza taldeak azken hilabeteotan bere lanak amaitu ditu, eta talde berria sortzeko eginkizuna bere gain hartu du. Oraindik ez da argitu zein izango den Tabirakoren zuzendaritza talde berria, baina argi geratu da lanean ari dela eta batzarrean aurkeztuko dela. Datu bakar-
ra da Ina Mendibe izango dela klubeko presidentea.

Pozik hartu dugu denok berria, eta eskertzekoa, benetan, oraingo zuzendaritzak, Itsaso Gartzia eta Ina Mendiberen eskutik gidatuta, egindako lana. Ekonomikoki klubaren kudeaketa lana handia izan da, eta horrek, nahiz eta gaur egun zailtasunak izan, klubaren egoera ona mantentzen du arlo honetan.

Kirol arloan, ordea, momen-
tu oso onak eta ez hain onak bizi izan ditu klubak. Nesken talde nagusiak jokatutako igoe-
ra fasea, junior mailan jokatutako estatuko txapelketa, muti-
lek Euskadiko Ligan izandako postu onak...

Entrenatzaileen inguruan, ostera, klubak gero eta arazo gehiago ditu talde guztiak ondo gidatuta izateko. Hain-
beste postu betetzea, lantzea eta kirol maila hobea lortzea zailtasun handi bihurtzen ari da, eta guzti horrek etorkizun labur batean konponbideak behar ditu.

Guztia lantzen jarraitzeko, ongi etorri, zuzendaritza talde berria! Ongi etorri, Ina Mendibe!

Antxia eta Gonzalez, balentria egitetik hurbil

Aldats gora jarritako finala irabazteko izan ziren

> TRINKETA

Joan zen barikuko San Blas Trinket Txapelketako finalean partidu ikusgarria eskaini zuten bikote biek. Emozioz betetako azken tantoen ostean, Ipar Euskal Herriko Bielle eta De Ezcurrak jantzi zuten txapela: 40-38. Ander Antxia abadiñarra eta Mikel Gonzalez berriztarra, galdu arren, egindako lanagaz gustura egoteko moduan daude.

Paxkal De Ezcurrak etortze-
rik izan ez zuen Lazkano orde-
katu zuen. Irabazleek atzean landu zuten partidua alde nabarmena hartu arte: 38-24. Orduan, Antxia atzean agintzen hasi zen, eta Gonzalezek zirt edo zart arriskatzea erabaki zuen. Tarte horretan bikain ibili ziren, eta partidua 38na berdindu zuten. Zoritxarrez, azken tanto biak aurkarientzat izan ziren.

Ina Mendibe Tabirakoko presidentegai izango da

Mendibe, gaur egun, klubeko presidenteordea da

> SASKIBALOIA

Gaur egun klubeko presiden-
teordea den Ina Mendibe buru duen taldeak Tabirako gidatze-
ko hautagaitza aurkeztuko du ekainaren 10eko batzar orokorrera. Talde horrek klubeko Zuzendaritza Batzorde berria osatzen badu, Mendibe izango da klubeko presidentea, Itsaso Gartzia ordezkaturatuta. Hautagai-
tza horren gainerako kideak

klubeko gaur egungo batzor-
deak berretsi ostean jakinarazi-
ko dituzte.

Talde horrek “gaur egungo Zuzendaritza Batzordearen babes osoa du”, Itsaso Gartzia presidentea prentsa ohar batean adierazi duenez: “Hurrengo hilabeteetan elkarrekin lan egingo dugu, klubeko jardura horretako jakintzen trantsizio ahalik egokiena egiteko”.

OSASUN GIDA

FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13

PSIKOLOGIA

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
